

## **EAEEn zirkulazio-murrizketak dauden datetan eta ibilbideetan zirkulatzeko baimen bereziak**

Zirkulazio segurua eta arina bermatzeko beharrezkoa denean edo ingurumenarekin lotutako arazoak daudenean, besteak beste, zirkulazio-neurriak edo zirkulazio-murrizketak ezarri ahal dira, orokorrak edo ibilgailu zehatz batzuetarako baino ez; Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen (urriaren 30eko 6/2015 Leg.ED) testu bateginak 18. artikuluan eta Zirkulazio Erregelamendu Orokorrak (azaroaren 21eko 1428/2003 ED) 37. eta 39. artikuluetan ezartzen dutenaren arabera.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak urtero ematen du urtean zehar trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen ebazpena. Neurri horien artean daude ibilgailu batzuek, data zehatz batzuetan, bide zehatz batzuetatik zirkulatzeko murrizketak.

Horregatik, indarrean dagoen Ebazpenak, horren aurrekoek bezala, bere lehen atalean zirkulazio-murrizketak ezartzen dizkie ibilgailu hauei:

- a) Salgai arriskutsuak garraiatzen dituztenei,
- b) Salgaiak garraiatzen dituzten eta 7.500 kg-tik gorako GMB edo ITGMB duten ibilgailuei,
- c) ZBO behar duten ibilgailuei eta ZBO behar ez duten ibilgailu bereziei.

Dena den, Ebazpenak berak, murrizketa ezarrita daukan ibilgailu-multzo bakoitzerako, salbuespenak jasotzen ditu, baita baimen bereziak emateko aukera ere, lehen aipatutako ibilgailuek zirkulazio-murrizketak dauden datetan eta bideetan zirkulatu ahal izan dezaten, baldin eta nahitaezko zerbitzuak egin beharra dagoela behar bezala justifikatuta badago.

a) Salgai arriskutsuei dagokienean, urteko ebazpenak ezartzen du bere III. eranskinean jasotzen diren salgaiak, eranskin horretan zehazten diren baldintzetan, garraiatzen dituzten ibilgailuak salbuetsita daudela.

III. eranskineko bigarren puntuan jasotzen diren salgai arriskutsuak badira, zirkulazioa baimendu ahal izango da.

b) Salgaiak garraiatzen dituzten eta 7.500 kg-tik gorako GMB edo ITGMB duten ibilgailuei dagokienean, urteko ebazpenaren IV. eranskinean zerrendatzen diren salgaiak etengabe egongo dira murrizketak betetzetik salbuetsita. Gainerako salgaien garraioa baimendu ahal izango da.

c) ZBO behar duten ibilgailuen eta ZBO behar ez duten ibilgailu berezien barruan, urteko ebazpenaren IV. eranskinean jasotzen diren funtzioak egiten dituzten edo

salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuei ez zaizkie zirkulazio-murrizketak aplikatuko. Eranskin horretan jasota ez dauden kasuetan, zirkulazioa baimendu ahal izango da.